

Femme Fatale



Bideoklip musikal bat egingen dugu "femme fatale" kontzeptuaren gainean.

Helburuak

- Maia Villot de Diegoren obrara eta sormenezko prozesuetara hurbiltzea.
- Hezkidetzeta lantzea, egunerokotasunari begirada kritikoa eginda.
- Ikusizko kultura deritzon kontzeptura hurbiltzea, "femme fatale"-ren iruditeriatik.
- Performancearekin eta bideoarekin esperimentatzea.

Aipamenak

Habitando el reflejo - m arte y cultura visual: <https://www.m-arteyculturavisual.com/2017/01/19/habitando-el-reflejo/>

Lo que la "femme fatale" esconde - Mito. Aldizkari Kulturala: <http://revistamito.com/lo-la-femme-fatale-esconde/>

La Femme Fatale, un personaje de cine creado para "atar" a la mujer y que acabó liberando su feminismo - Tendencias: <https://www.tendencias.com/feminismo/femme-fatale-personaje-cine-creado-para-atar-a-mujer-que-acabo-liberando-su-feminismo>

El descargo de la femme fatale: 'The Sinner' y 'Alias Grace' - Pikara: <https://www.pikaramagazine.com/2018/02/the-sinner-alias-grace/>

Bideo edizioa- DaVinci Resolve: <https://www.youtube.com/watch?v=8VNn1VvDYoM>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Maiaren *Échale la culpa I, II y III* lanak aztertzen ditugu eta galdera batzuk egiten ditugu:

- Zertan dira berdinak hiru abestietako letrak?
- Zein dira haren lanetako materialak? Zer elementuk osatzen dituzte?
- Ezagutzen al dugu gai bereko abestirik? Nork abesten ditu? Non entzuten dira? Ba al da abesti horien bideoklipik edo irudirik? Nolakoak dira?

2. "Femme fatale" kontzeptua azaltzen dugu eta adibide ezagunak ematen ditugu.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. 4ko taldeetan, "femme fatale" kontzeptuari buruz ikertzen dugu eta honakoa bilatzen dugu:

- Kontzeptua non sortua den eta nola erabili den.
- "Femme fatale"-ren bi irudi.
- Pertsonaia mota hori garrantzitsua eta argia den bi abesti eta bi film.

2. Ikerketen bateratze lana egiten dugu, eta nolabaiteko adostasunetara iristen saiatzen gara aurkitu ditugun film, irudi eta abestiek haren nortasunari emandako ezaugarri estetiko eta psikologikoen gainean.

3. 4naka aurkitutako abesti guztien artean deigarrien egin zaigun huraxe aukeratzen dugu eta letra aldatzen dugu, bi ohar hauetako bati jarraituta, gutxienez:

- "Femme fatale" zer den definitzen dugu, ikertutakoaren arabera. Abestirako argudio posiblea: bere burua definitzen duen "femme fatale" bat; beste pertsonaia bat "femme fatale" gisa definitzen duen pertsonaia bat; "femme fatale" bat egiteko jarraibideak...

- Kontzeptuari berari kritika egiten diogu (adibidez: birdefinituta, haren parodia eginda...).

4. Ikasgelan idatzitako letrak komunean jartzen ditugu, eta 2 eta 4 artean aukeratu, haiei buruzko bideoklip bat egiteko. Ikasleen artean zereginak banatzen ditugu:

- Atrezzo eta jantziak diseinatzeko taldea.
- Zuzendaritza.
- Soinua-musika.
- Dramatizazioa.
- Grabazioa.
- Edizioa- Postprodukzioa.

5. Grabatu baino lehen, dena probatzen dugu.

6. Materiala editatzen dugu.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Egin diren bideoklipak ikusten ditugu eta beste ikasgela batzuk gonbidatzen ditugu lanak ikustera "femme fatale"-ren irudia zalantzan jartzen duen eztabaida bat irekitzeko.